

# **ALOKAIRUTIK LANGILE- -SUBJEKTIBOTASUNERA**

**Joseba Tobar-Arbulu**

Klase-eraketa dela bide, kapitalaren eta Estatuaren desegituraketaz aritzen da saio honetan. Autobalorazio kontzeptua erabiliz, Negriren zenbait lan arakatzen dira. Horrela marxismoaren berrirakurketa berria egin nahi da, sartu garen aro berria aztertu eta berorri erantzuna emateko.

---

## Kapital sozialdua

---

Fabrika/gizarte erlazioa lan-hipotesia da, zeinak, ustiapenaren mekanismo sozialen bidez, ikuspuntu gramsciar eta postgramsciarrez haratago joaten lagatzen duen.

Fabrika/gizarte erlazio horretatik, eta erlazio horri jarraitzen zaion klase-eraketatik, *kapital sozialdu* eta *langile sozialdu* kontzeptuetara irits daiteke.

Gizarte fabrika bilakatzen dela egia baldin bada, eta beraz, prozesu produktiboaren uneetara murrizteko, produkzio kapitalistak azpiegitura sozial guztiak subsumitzen, bereganatzen dituelarik, baldin eta hori guztiori egia bada, orduan ondoko baieztapen antagoniko batek ere izan behar du egia, alegia, zenbait erlazio-aren bitartez langile-kolektibotasunaren hedapenak ere gauzatu beharko duela.

Gainera gauzatu egiten da elementu antagonista bezala, pixkanaka-pixkanaka ezagutu diren prozesuen bidez, zeintzuek, ikuspuntu praktiko batetik, langile sozialduaren sortzea erakutsi baitute.

Une historiko bakoitzean langileriaren osaketa berezi baten aurrean gaude. Birproduzitu beharrean dagoenez, kapital konstanteak eta kapital aldakorrek sekuentzia sozialak determinatzen dituzte. Birproduzioaren elementu sozial horiek historikoki definitzen dira: hau da, epe konkretu baterako kapital aldakor mota bat determinatzen duen beharrizan edo

premien kalitate eta kantitate konkretua dago. Honela, langile-klasearen *eraketa teknikoa* da baldintza horiek osatzen dituen kontzeptua. Baina kontzeptu honi *eraketa politiko* kontzeptua lotzen zaio. Hau da, langileriaren osaketaren definizio historikoki aldakor hori ez dago soilik loturik beraren erlazio organikoaren eta birproduzioaren faktore objektiboekin. Izan ere, langileriaren osaketa ez da soilik epe edo garapen kapitalistaren era baten emaitza, kondizio horien menpeko kapital konstantearen ondorioa. Aitzitik, premiek ezezik, borrokaren tradizioek, bizitzaren eta kulturaren modalitateek ere, hau da, alokairuarekin batera, klase-langile horren birproduzioaren erlazioa determinatzen dute ekintza politiko, kultural, nazional sozial eta moral guztiek etengabe aldaturiko errealitatea.

Zenbait kontzeptu arakatu beharra daukagu; lot gakizkien, oraingoz, klase-eraketari eta autonomiari.

*Klase-eraketa* kontzeptua subjektuaz mintza daitekeen oinarri material bakarra da. Hots, ez da gauzatzen subjektuaren kontzepzio materialista, klase-eraketatik pasatu ezik: soilik klase-eraketak ematen digu subjektuaren konplexutasun material eta politikoa. Subjektuaren analisi materialista soilik klase-eraketaren analisiaren bitartez egin daiteke.

*Autonomia* bi aldetatik ulertu behar da: Alde batetik, langile-interesaren independentzia garbia; oinarritzko kontzeptua, etengabe agertzen den antagonismoa, hain zuzen ere.

Bestetik, aipaturiko fabrika/gizarte fenomenoari dagokion klase-eraketa-rekiko erreferentzia da autonomia, zeinak kooperazio handiagora bultzatzen baitu.

Autonomia, beraz, ez da soilik langile-independentziaren baieztapen zaharra, baizik eta independentzia horren kalifikazioa. Ikuspuntu hone-tatik, autonomia kontzeptua fabrikaren eta sozial denaren arteko klase-berreraketari dagokiona da, zeinaren barruan autobalorazio-prozesuak gauza daitezkeen: lanindarraren birberegantze-prozesuak, kapitalaren sintesia hausteko ahalmen efektiboko prozesuak, alegia.

Langile-klase indartsuena ez da, halabeharrez, enpresa handikoarena, baizik eta, produkzio-prozesuekiko kontraboterea adierazteko eta baldintzatzeko indarrak bere berproduzitzeko mekanismoak menperatzen dituena.

Birregituraketa kapitalistan, oinarritzat, balorazio sozial hedatuaren prozesuak zenbat eta ageriagoak izan, hau da, produkzio-prozesua sozialki hedatzen den heinean, balio-legeak formalki funtzionatzen du soilik, hots, lan indibidual eta determinatuaren eta ateratako plusbaliaren arteko erlazio zuzenaren gainean ez du funtzionatzen, baizik eta lan sozialaren osotasunaren gainean.

Hemen historia berria hasi egiten da. Prozesu produktiboen sozialtzea hedatzen denean, eta batez ere, sozialtze horren bitartez, (nahikoa argi Marxek deitutako premien esferaren hedatzea agertzen denean, aro berri

batean sartzen gara. Prozesu horren barnean), marxismoa ulertzeko modua eraldatu egiten da, kategoria marxistaren berreraikitze sistematikoaren aurrean gaude. Portaera berri horietatik, esperientzia berrietatik, epe berrian sartu da non marxismoaren sortzapen kreatiboa gauzatuz joan daitekeen. Negriren hitzetan, Marxek, bere denboraren kondizio historikoak direla eta, ezin idatz zezakeen "alokairutik langile subjektibotasunera" delako kapitulua idazteko posibletasuna gertatu da.

Baina, argi geratu behar du, langile-klaseaz dagoen erabateko kontzepzio mitikoa hilik dagoela, bai eta *operaismo* mugimendua, eta berak suposatu zuena, ere. Beharrian edo premien esfera hori esfera hedakor eta dinamikoa dela ulertzen hastea garrantzi handikoa da. Teorikoki oso garrantzitsua, zeren lanindarraren salmentaren, eta salerosketa honi loturiko premien esferaren determinazioaren arteko harremana pikutara joan den erlazioa baita. Beraz, beharrian hedapen hori funtsezkoa da.

Langile sozialdua produkzio, birprodukzio eta zirkulazioaren prozesuetan osatuz baldin badoa, egiazkoa da kapitalaren prozesuaren era, Marxek joeratzat aurrikusi zuen dimentsioa, produkzioan zirkulazioaren dimentsioa alegia, subsumitzen edo bereganatzen duen era dela. Zirkulazioa ez da produkzioaren kanpoko elementua, barnekoa baizik. Barruko elementua da ez zirkulazioaren Estatu-antolaketa-termino politikoetan, ez plangintza-Estatuaren eran, baizik eta egiturazko

terminoetan. Horrek zera esan nahi du, kapitalak, bere Estatu-erak, zirkulazioaren urratsak, bere birproduzioaren oinarritzko elementu bezala, etengabe aitzinirudikatzea lortzen dituela; horretarako, zirkulazioko kostu guztiak kostu produktibo bilakatuz, baina, egoera horretatik, langile-kontraerasoaren arriskupean jarritz.

Honela kapital helduaren Estatu-aren era, alderdi politikoen Estatu-era, hau da sindikatuen eta alderdien korporatibismoak praktikan ezarri duen Estatu-era deskriba daiteke: "totalitarismo demokratiko" berriaren, baterakeria bortxatuaren deskribapena, alderdikraziarena alegia. Baina, oraingoz, lortu ez dena, autokontzientzia, separaziorako, eta birproduzioaren mekanismo guztiak bereganatzeko maila handietara iritsi den langile-autobalorazioa da. Autobalorazio-prozesu horren bermak soilik permititzen du irekiera politikoaren maximoa. Birproduzioaren prozesu guztiaren barnean langile-autoantolaketa azaltzen deneko egoeran gaude.

Zertan datza, hortaz, diskurtso teorikoaren atzerapena?

(i) Oraingoz ez da eman portaera kapitalistari eta langileen portaerari buruzko definizio sozialik, hau da, balorazio-prozesuak ez dira eman erabateko kontzeptu sozialen bidez. Kapital sozialaren eta langile-klasearen kategoriak ez dira definitu autobalorazio sozialaren potentziaren bidez. Ekonomia politikoaren kategoriek orain kritikan segitzen dute, eta hortik

dator garapeneko antagonismo sozialaren mailei dagozkien kategorია egokien falta.

(ii) Ekonomiaren kritikaren arlotik ateratzeko ahalmenik eza, eta, hortaz, ez "politiko denaren autonomiaren" arloan pausuak emateko gaitasunik baizik eta borrokan dauden bi klaseen existentzia politikoek kalifikaturiko arloan urratsak emateko ahalmenik eza.

(iii) Portaera indibidualak, erabaki pertsonalak, proiektio politikoaren mailara itzultzeko ahalmenik eza.

Beraz, hona hemen, azken urteotan gertatu denaren mailara iristeko soil-soilik, sakontzeko zenbait puntu:

- a) ekonomia politikoaren kritika sakontzea, sozialtze-arazoak ontzat emanez, kategoriak eta funtsezko antagonismoak definitzerakoan;
- b) alde bietan, antagonismo horien adierazpen orokorreko erak identifikatzeko politikaren kritika bat; eta
- c) proiektu kritiko honi maila indibidual, pertsonala lotzeko ahalmena.

Balorazio-prozesua arlo sozialean garatu da, lan-prozesu desberdin eta hedatu batzuk barneratuz, era erreale batez subsumituz; baina, une berean, borroken zirkulazioa ezin du hautsi, langile-kontzientziaren zirkulazioa alegia, klase-eraketa politikoaren elementu material eta historiko bezala.

Kapitala ezartzen ari den lan-merkatu desberdinen arteko harremana garapenaren kontraesan erradikalen hedapen bihurtzen da. Estatuak lanindar sozialaren maila desberdinekiko banaketaren, determinazio hierarkiko eta disziplinatuaeren, potentzia hau bereganatu nahi luke. Ikuspuntu horretatik, Estatuak enpresa-Estatua izaten segitzen du, metapen-prozesua botere estatalaren menpe dagoen heinean, klase-egituraren, eta beraz, klase-eraketaren gainean eskusartze zuzenaren ahalmenaren bitartez botere horrek legitimatu nahi duen neurrian. Baina ekintza hori guztiori oztopatu egin du klase-politika batek, jarrera politiko batek, zeina, bere aldetik, era egoki batez, modu antagonistikoaz, oposizio legez, bere indarra adierazteko gai izan den.

Kontrol kapitalista maila batean aritzeko beharturik dago, zeinean lan sozialaren unitatea, lan sozial abstraktuaren unitate bezala, eskulanaren eta lan intelektualaren mailen bateratze legez, gero eta hertsia goa baita. Hortaz, ekintza kapitalista baten aurrean gaude, zeina ondoko elementuez baliatzen baita antolatzeke: lan-prozesuen hedapen sozialaz; langilegoaren mailakatzearen eta segmentazioaren bitartez, edo merkatuaren bidez, edo hirugarren sektoreak zuzenki edo zeharka errepresentatzen duen lan birproduktiboaren medioa lan-prozesua arlo sozialean sartzeaz. Hala ere, hori guztiori egiten den lan sozial abstraktuaren bateratasun orokor, efikaz eta joerazkoarekin kontraesanean dago. Lan sozial abstraktu hori kategoria erreala da. Beste aldetik, prozesu hori geroko

banaketa politikorako eta artikulazioarako ahaleginarekin batera doa.

Langile-autobalorazioaren prozesua bi mailatan identifikatzen da. Lehen zera da, produkzio- eta birproduktio-prozesuan konkistatzen eta bereganatzen diren kantitate materialetan oinarritzen den autobalorazioa. Beste aldetik, beharrezko da autobalorazio-prozesu horiek kontrabotere-une bezala hartzea, hau da, autodefinizioaren une politikoak legez, hots, produkzio kapitalistaren errealtatetik klasearen errealtate propioaren separazioaren mementu politikoak legez. Hori guzti hori produkzio- eta birproduktio-prozesuaren barnean gertatzen da. Prozesuaren barruan agertzen da, baina ez da azaltzen prozesuaren une dialektiko bezala baizik eta elementu antagonista legez, krisi legez. Krisia separazio bezala, krisia haustura legez, krisia beharrezko lanaren kontrakoa legez, balorazio-prozesuarekin gero eta harreman gutiago daukan beharrezko lanaren aurkakoa, kapitalaren proiektua den eta dominazioaren elementua den plusbaliari aitzia.

Gaur egunean herrialde kapitalista garatu guztietan dagoen krisia antzematea, "beste" langile-mugimenduak kapitalaren erlazioaren etengabeko haustura kontutan hartzen ez bada, ezinezkoa da. Horrek esan nahi du krisi kapitalista, egitura kapitalistetan dagoen botere dualaren ondorioa, histeria errepresibo bezala ikus daitekeela: herrialde horietan martxan ezarri den errepresio-politikan. Histeria hori krisiaren ondorio zuzena besterik ez da, maila politikoan argiro

azaldua edo eta erresistentzia bezala zein eraso legez aurkeztua.

Beraz, gaur egunean bere burua errealtate politiko legez aurkezten duen autonomia beharrezko da, egitura politikoaren, errepresentazioaren eta ordezkatzearen hausturaren aberasatasuna termino propioetan bereganatuz, aukera orokor politikoa baieztatzeko.

Gaur horrelako diskurtsoa egiteko aukerarik badago egon, politikarien gaia pobretuko ez den politiko denaren birkonkista proposatuz. Arazoa zera da, desioen, beharren, premien, borroken eta militantziaren intentsitatea bateratzea, zeinean klase-mugimendu berriaren berezitasun sortzaileak korporatibismo eta zentralismo-mota guztiak desagertzaraziko dituen.

---

### **Autobalorazioa**

---

Indarkeria Estatuari dagokio, edozein Estaturi. Estua indarkeriaren bitartez baliatzen da bere dominazioari eusteko eta segurtatzeko. Indarkeriari kontra egiteak, pertsona batzuen gaineko beste pertsonen menperakuntzari aurre egiteak, Estuari aitzi egitera darama.

Estuaren kontrako ekintza, beraren suntsitzearekin lortu behar da, kapitalaren sistemaren desegituraketarekin. Krisi kapitalistak ezin du beste zentzurik eduki, sistema kapitalistaren desegituraketa baizik.

Kapitalerako, sistemaren berregituraketa erregimenaren egonkortasunerako baldintza da. Horrela, egonkortasun politikoaren proiektuan proletalgoaren osagai antagonistak ezabatu eta barneratu egiten dira.

Krisi-Estatuak ez du lagatzen izaten, inoiz ere ez, Estatu plangintzatua. Estuaren aurkako langile-borrokek sortu dituzten desegonkortasunen elementu guztiak kapitalak bereganatu ditu eta berregituraketaren erreminta bilakatu. (Inflazioa, bereziki, desegonkortasunaren elementua izan barik, alderantzizko bihurtu da, hots, berregituraketarako arma erabakiorra. Eta hori prezio oso garai batez).

Prozesu horren markoan, klase kapitalistaren krisi subjektiboan egoerak ez dira falta. Baina Estu-era indartzera daraman ahalegina, hau da, balioaren legearen inposaketa (nahiz eta etengabe aldatua), ez da inoiz gelditu.

Balio-legearen krisiaz mintzatzen denean, beharrezko da ondokoa kontutan hartzea: legearen krisiak ez du deusezten bere iraupena, nahiz eta bere era aldatu, ekonomia politikoaren legetik Estuaren menperakuntzaren era bihurtuz.

Proletalgoaren interesa beste norabidean mugitzen da. "Langile autobalorazioa" "Estu-era"ren kontzeptuaren aurkakoa da. Langile-autobalorazioa kapitalaren boterearen desegituraketa da.

Ekonomia politikoaren kritika marxistak langileriaren indepen-

dentzia, autobalorazio-proiektu bezala, adierazten dituen baldintza formalak Negriren *La forma Estato* (1977, Milan: Feltrinelli) izeneko liburuan ikus daitezke (297-342 orr.). Gehitu behar da, alta, langile-autobalorazioaren praxi kolektiboak kontzientzia subjektiboaren batasuna determinatzen duela.

Autobalorazio-prozesuaren osotasuna aukera bezala hartu behar da, produkzio eta birprodukzio kapitalistaren prozesuaren osotasunik erabat desberdin den proiektu legez. Beraz, klasearen independentziaren eraikitze-prozesua separazioaren prozesua da. Klasearen autobalorazioa, gehienbat, etsai-osotasunaren desegituraketa da, norberaren independentzia kolektiboaren autoezagutzaren eksklusibotasuneraino eramana.

Proposatzen den praxi kolektiboaren mugimendua beste bat da, "sozialismo" izenaz eta izanaz eza gutzen denarekin zerikusirik ez duena. Soilik beste bat bezala autoezagutzuz, soilik errotiko desberdintasun eta aniztasunaren osotasunean ekinez, berriztasunaren aukera eta esperantza existi daitezke.

Garapen kapitalistaren osotasunarekiko, garapen historikoaren osotasunarekiko erlazioa mugimenduak berak determinatzen duen desegituraketaren indarrak bermatzen du soil-soilik. Kapitalaren historia zera da, etengabeko hausturaren kontra, kapitalak eta bere Estatuak martxan jartzen dituzten berregokitze-operazioen jarraipenaren historia. Hortaz, ez dago inolako homologiarik,

ezelako logiken itzultzerik desegituraketaren mugimendu horren errealtatearen, eta garapen, edukin eta helburu kapitalistaren marko osoaren artean.

Autobalorazioaren separazioa desjarraitasun bezala, jauzi eta berrikuntzen multzo legez, aurkezten da.

---

### Menperakuntzaren era

---

Menperakuntzaren logikaren bila-kaera, ekonomia politiko burgesaren kontzientzia kritikoa, hiru epetan, gutienez, agertu da, 1930eko Depresio Handiaz geroztik:

(i) Aro keynestarrean, langile-borrokaren kontrola modu global batez eginez. "Masa-langile"aren eraketari eta borrokari, Keynesek zera proposatu zien, eskariari (era progresibo batez) eskaintzaren egokitze osoa. Plangintza-Estatuaren teoria da berori.

Keynes proposamen politiko hutseko era orokorraren markoan mugitu zen. Prozesu ziklikoari joerak kontra egiten dioenean, azken orekak langilegatazkek errespetatzen ez dituztelako, Estatu Keynestarra sartzen da jokoan.

(ii) Krisi-Estatuaren teoria langile-bultzada osoa banatzen, beroren metatze-mekanismoetan kontrolatzen, klase-eraketari erasotuz ohartarazten ahalegintzen da.

Oreka keynestar handiak, klasearen barneko hausturak ordeztzen ditu, ekonomia politikoaren mikrofisika baten bidez. Kaleckiren analisiaren

arabera, ("Epe luzerako joera epe laburrekoaren egoeren katea baten osagairen bat –zeintzuk oso astiro aldatzen diren– besterik ez da"), garapenaren teoria fluktuazio ziklikoenarekin parekatu nahi da, maila mikroekonomikoan agertzen diren dinamikak barneratuz.

Krisi-Estatuaren teoria, teoria erreformista da. "Masa-langile"aren produktibitatearen sortzapenarekin parekatuz, oligopolioen ekonomia baten hazkundera lortu nahi du.

(iii) Bien bitartean, borroka aurrera joan da, masa-langilea gizarte osoan afektatzen joan da, langilea "langile sozialdu" bezala aukeratu da.

Langile-borrokak gizarte osoa, zirkulazioaren mekanismo osoa, afektatzen duenean, sistemaren birproduzitzeko araei buruzko aurkakotasun batera eramaten du kapital osoa. Une horretan, finkaturik zegoen ekonomia politiko burgesaren kontzientzia krisimaila garaiagora iristen da.

Aro berri honetan, aurreko krisien elementuak bereganatzen dituen honetan, langile-klasearen mugimendu sozialei era ulergarriagoan egokitu nahi zaie. Orain interes-gunea zirkulazioa da.

Ez dira aski produkzioaren kontrol globala (keynestarra) ez eta beraren kontrol dinamikoa (Kaleckitarra) ere; arazoa orain zirkulazioaren kontrol funtzionala da, produkzio eta birprodukzioaren arteko lotura dinamikoaren kontrola.

Denboraren arazoa funtsezkoa da: Keynes ez bazuten oreken determinazio denboralek kezkatu, eta Kalecki, aldiz, denbora-unitateen barnean fenomenoaren birdefinizioaren bitartez keynesianismoa determinatzen ahalegindu bazen, gaur egun dimentsio denborala prozesu osora hedatu da.

Zirkulazioaren denbora osoa hartu behar du kontutan analisi ekonomikoak, zirkulazioaren denbora osoa menperatu behar du politika ekonomikoak: funtzioen eta zikloaren operazioen aldiberekotasunaren hipotesia operatiboa eta politikoa da (Milton Friedmanek aldarrikatzen duen antzera).

Zirkulazioaren eta birprodukzioaren arteko loturan erabakiorra da dimentsio denborala, eta, orokorrean, birprodukzioaren klase-borrokaren gaineko erlazioan.

Beraz, ez da kasualitatea erreformismo kapitalistak egun, mundu mailan, deflazio (edo desinflazio) basati baten estrategiari eustea. Edozein langile-autobalorazioen finkapen suntsitzeko asmoan, kontrol orokorra birprodukzioaren prozesuaren artikulazio guztietan sakondu behar da, gogordura guztiak deuseztatzen utzi behar du, birprodukzio kapitalistaren zikloa isurkorrago bilakatu behar du. Hauxe da kapitalaren legea, betiko legea; gaur egunean daukan berezitasuna zera da, kontrolaren sakontasuna, intentsitatea eta hedapena.

Kapitalak arlo sozialean klase-presioa jasan du, bere erreferentzi puntuak desegituratu dituen presioa.



Birregituraketa, bada, menperakuntzaren era hutsa besterik ez da.

Kapitalak lanindar produktiboaren erabateko sozialtzea jasaten duen unean, produkzioaren eta birprodukzioaren arteko lotura kontrolatzeko, eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka-puntuen inguruan, oinarri produktiboa hedatzearen gainean, bere esku zeuzkan erremintak (keynestar edo/eta kaleckitarrak) desagertzen dira. Desagertu egiten dira kapitalaren birprodukzioaren mekanismoek eta langileriaren birprodukzioarenek ez dutelako gehiagorik sinkronian funtzionatzen.

Langileriaren autobalorazio sozialak langile-beharrizanen kalitatea eta kantitatea, era antagonikoan, aragotzen ditu, kapitalaren dimentsio guztien birprodukzio konplexuaren aurka, zirkulazio sinplearen imajina erradikaltzen du. Langileriak daukan indar-egoera kontutan harturik, arazoa da, hortaz, beraren birprodukzio autonomoaren indarra eta denbora murriztea.

Esandakotik, langile-autobalorazioaren ikuspuntu teoriotik, ondoko ondorioak ateratzen dira:

(i) Alokairua ez da jadanik, beraren identitate ekonomikoan, aldagai independenterik. Boterearen dinamika osoaren menpeko da erabat, Estatuaren autonomia politikoaren marko osoaren menpekoa.

(ii) Langile-borrokaren zentrua honetan datza, alegia, proletalgoaren batasunaren, beraren autobalorazio-

aren, birprodukzio-kostu bezala alokairuaren imajina orokorra kontsideratzean.

Arazoa, beraz, politikoa da bi aldeetatik. Kapitalarentzat banaketa eta hierarkia dena, proletalgoarentzat batasuna eta berdintasuna da. Kapitalarentzat lanaren menekotasuna dena, proletalgoarentzat autobalorazio-prozesua da. Estatuarentzat produkzioaren eta birprodukzioaren aldibereketasuna dena, proletalgoarentzat birprodukzio-prozesuaren independentziaren garapena, disimetria, desjarraipena da.

---

### Desegituraketa

---

Autobalorazioaz zera ulertu behar da, alegia, metapen- eta garapen-mekanismo kapitalisten aurka, botereaz jabeturik, eta ogasunaz birjabeturik, produkzio eta birprodukzio-arloan langileriak martxan jartzen duen aukera.

Merkantzien produkzioaren eta (birprodukzio kapitalistaren mekanismoan gero eta uztartuagorik dagoen) zirkulazioaren sozialtzearen arloan proletalgoaren autobalorazio-prozesua sartzen denean, autobalorazio-prozesutik beretik kanpoko antagonismoak kontsideratzeko aukera desagertzen da.

Langile-borrokak berrantolaketa soziala, berregituraketa kapitalista, behartzen du. Langile-autobalorazioak ez dauka bere jarraipena birregituraketan; horretan bere indarraren efektua bertzerik ez du ikusten,

kapitala desegituratzeko bere bote-  
rearen hedapena. Ez dago, beraz, maila  
horretan, bitartekaritza politiko  
posiblerik, ez instituzio mailan, ez  
eta berregituraketa ekonomikoaren  
inguruan ere.

Langile-ikuspuntua lantegitik,  
fabrikatik gizartera hedatzen da,  
kapitalari lan produktibo soziala  
inposatzen dio. Sozialki baloratzean,  
kapitala desegituratzen du, eta  
kapitalak zenbat eta behartuago izan  
gizartearen gaineko kapitalaren kontrol  
zuzena areagotzeko, hainbat eta  
gehiago desegituratu egiten du.

Langileria instituzioetatik eman-  
tzipatu egiten da gastu publikoan,  
zeina argi eta garbi jadanik sistemaren  
desegituraketa baino ez den, etenga-  
beko inbertsioak inposatuz.

Langile-justiziak autobalorazioaren  
indar produktiboa bera dauka, zeren  
lan produktibo sozialaren gehiengoa,  
gehiengo koalitatiboa eta koanti-  
tatiboa, baita.

Klase-eraketaren kontzientziak  
artikulatu beharra dauka, bere  
berrartikulazio-sistema bizi behar du.  
Klasearen tentsio separatuak metodoa  
behar du. Kontua ez da bestea nahi  
izatea, baizik eta bestea desegituratzea.  
Beraz, separaziorako metodoa behar  
da, mundua konkistatzeko, klasearen  
autobalorazioak hedaturiko sarea  
beregantuz.

Proletalgoarentzat hutsa ez da  
existitzen. Etsaiak husturiko espazio  
bakoitza, mugagabeko indar hedatzaile  
bateg estali, bete eta bereganatzen du.

Kapitalarekiko erlazioak ez du  
homologiaren loturarik: gaintitu  
beharra dago, bera ordeztzeko.

Eraldakuntza sozialaren metodoa  
Estatuaren deuseztapenerako borroka  
besterik ezin daiteke izan, autobala-  
lorazio eta prozesu kolektibo baten  
bidez produkzio-modu kapitalista osoa  
ordeztzeko.

Separaturik existitzeko, determi-  
nazioetik autobalorazio-prozesuaren  
indarraren hedapenerako jauzia  
ezaguera-metodo batek eratzen du.  
Prozesuaren helburua zera da, lanaren  
menperakuntza kapitalistaren kontra,  
lanaren merkantilizazioaren eta  
kapitalak lana truke-baliora murriz-  
tearen aurka, *lanaren erabil-balioa*  
azpimarratzea eta gorestea.

Autobalorazioa ezin sar daiteke  
"sozialismoan", berorren tradizioan.  
Borrokan bertan aurki daitezkeen  
legeen materialtasunari dagokio.  
Marxek "azalketaren modu berria"  
klasea existitzeko era berri bihurtu da.  
Des-lanaren neurri positiboa bilatzen  
jotzen da.

"Sozialismorako", funtsezko oina-  
ria indar produktiboen garapena da.  
Beraietan eraturik dauden produkzio  
eta ustiapenaren harremanetatik indar  
produktiboen askatzea, indar produk-  
tiboaren beren garapenaren barneko  
prozesua da. "Sozialismoak" beti  
beharrezkotzat interpretatu du lotura  
hori. Orain, Estatu nuklearraren  
aurrean, eta garapen ekonomikoan  
nukleargintzak dauzkan itzulezinezko  
ondorioen aitzinean, nola kontsidera  
liteke bateragarri suntsitzeko ahalmen

horren eta askapenerako desioen arteko lotura?

Hemen garapen kapitalistaren kontzeptu bateragarria hautsi egiten da: alde batetik, kapital konstantearen garapena garapen suntsitzaile bihurtzen da; bestetik, kapitalarekiko harremanetatik indar produktiboak errotik liberatu behar dira. Lan biziaren menekotasunak, kapitalaren aldetik, iraganezinezko barne-muga airerazten du.

Lan hilaren eta lan biziaren sintesiak, balore berriak determinatu ordeztu, suntsipenaren posibletasuna gauzatzen du. Beraz, zehazki Marxek seinaturaluriko arloan aurkitzen gara; izan ere, Marxen analisi guztia horretara baitoa, alegia, kapitalaren sintesiaren elementuak halabeharrez separatu, banandu beharko direneko puntura. Alde batetik, sistema kapitalista dago, bere desegituraketak preso, eta beste aldetik, lan biziaren askapen kolektiborako baldintzak daude. Horixe da, bada, Marxen arloa. Egiaz, Estatu-eraren eta (langile-subjektibitatearen eta autobalorazio-prozesuaren) praxi kolektiboaren analisiak separazioaren logikan sartu gaitu.

Separazioa edo banaketa ez da agertzen haustura metodologiko bezala, intentsitate historiko osoarekin eta behinbetiko muga teoriko batekin baizik. Ez joera legez, gauzatu den zerbait baino: indar produktiboaren funtzioa ez dagokio gehiagorik garapen kapitalistari. Langile-eraketak soil-soilik adierazten, errepresentatzen du indar produktiboen garapena.

Kapital eta indar produktiboen dialektika, kapital konstantearen eta aldakorraren arteko dialektika garapenaren puntu honetan materialki hautsi egiten dira. Indar produktiboa kapitaletik banandu egiten da. Marxismoa bera, indar produktiboen garapenaren teoria bezala, klase-eraketari, langile-autobalorazioaren prozesuari soil-soilik aplikatzen zaie. Marxismoa separazioaren logika bilakatu da.

---

### **Kategoria sozialak**

---

Ikus dezagun haustura hori Estatu nuklearraren sorreran. Ikuspuntu honetatik, Estatu kapitalistak berezko dituen desegituraketaren prozesuen analisia (balio-legearen eta berorren krisiaren aurrean) baieztaturik dago. Izan ere, politiko denaren autonomia kapitalista modu itzulezinean eraten da. Kapital konstantetik oinarria lortzen du, zeinetik suntsitzearen txantxia sortzen den. Terrore atomikoa, nazioarteko mailatik Estatuaren barneko antolakuntzara pasatuz, kontsentsuaren gestioan eta antolaketaren mekanismoetan susmatzen da.

Balio-legearen krisiak, menperakuntza bezala berorren iraupenak, oinarri materiala daukate ondoko ezaugarri substantzialetan eta formaletan:

(i) Ezaugarri formaletan, garapenaren interes orokorrarekiko erreferentzia soilak ezin eduki dezakeen menperakuntzaren efikazia positiboa dauka terrorearen erregelak. Gainera, terroreak menperakuntzaren perspektiban

beste ezaugarri bat aurkezten du: ordenaren beharra adierazten du, berorren artikulazioak, zergatiak eta norabidea zehaztu gabe.

(ii) Ezaugarri substantzialetan badauka txantaia nuklearraren jabetasunaren gaineko menperakuntzaren oinarriak izaera espezi-fikoak. Menperakuntzaren zentraltzean eta gizartearen artikulazio hierarkiko era errepresiboetan gogordura sortzen du.

Nuklear-Estatuaren sortzearekin, politiko denaren autonomia kapitalista, modu itzulezinean eratzen da. Kapital konstantea zuzenki dominazio bilakatzen da. Eurokomunismoak aldarrikatu zuenaren kontra, alegia "politiko denaren autonomia", lan hilaren terrore nuklearrak egituratu egiten du. Baina, zenbat eta gehiago kapital konstanteak totalismorantz jo, nuklear-Estatuari dagokion irudi terrorista eta itzulezinezkorantz, gero eta autonomoagoa ere agertzen da proletalgo berria, lan sozial guztia bere gain hartu nahiz.

Lanindarrak, bere autobalorazio-prozesuan sozialki bateratua, aparteko kemen sortzailea agertzen du. Langile-autobalorazioaren prozesuaren sozialtzeari begiratzean, jauzi koalitatiboa ikusten da. Lan produktiboari objektiboki eta subjektiboki loturik dauden kategoria guztiak sozialduz doaz. Hemendik aurrera lanindarra *sozial* izanen da soil-soilik. Jauzi koalitatiboa, beraz. Hortaz, kategori aldaketa hori gauzatu da, errealitate berri baten aurrean gaudelako. Lan produktibo sozial baten aurrean gaude, amankomuneko indar koalitatiboa.

Urrats edo jauzi hori materialki honela kalifika daiteke: lan-indarretik sormen-indarrera. Jauzia, langile-mota berriaren independentziara eramanen duen prozesua da. Langile berrien premiak eta beharrianak egokiro betetzeko ahalmena da prozesua, autobalorazioaren sare produktiboan sarraraziz.

Beraz, *sormen-indar berria* honela defini daiteke: indar produktibo den arabera, energia intelektual abstraktuan independentzia berriztatzailea oinarritzeko, langile-autobalorazioaren prozesua betetzeko klase-gaitasuna, erabateko independentzia antagoinistikoaz.

Langile sozialduak beren buruentzat ekoizten dute, eraldatze sozialaren metodoaz, eta ez-lanaren neurriaren arabera. Ez-lanaren bitartez, hau da, kapitalerako ez den beste lan-mota berri baten bidez. Sormen-indarra honakoari dagokio, bada: bete dituen beharriari, artikulatzen dituen desioei eta nahiei, birproduktzio-prozesuaren ezaugarriari. Sormena, bere aldetik, proiektu-anizkuntasunari eta proiektu berritzaile orokorrari dagokie.

Ohizko lanari, kapitalerako den lanari uko egitea balorazio-prozesuaren edukin bezala hartu behar da, ez helburu legez. Autobalorazio-prozesuaren helburua lan biziaren askapen osoa da, hala produktioan nola birproduktioan; askatasun kolektiboaren zerbitzurako aberasta-sunaren erabilera osoa da.

Lanari uko egitea autobalorazio-prozesuaren mementua da oraindik, balio-legearekiko beraren harreman suntsitzailean. Baina ukatze horri sormena, bere zentzu berezian, gehitzen zaio, hau da, kapitalaren kategoriek menperatzen ez duten produkzio-moduaren ezaugarri koalitatiboa.

Langile-borrokek berreraketa soziala ondorioztatzen dute, berregituraketa kapitalista. Langile-autobalorazioak, alta, ez dauka bere jarraipena berregituraketa kapitalistan; bertan soil-soilik bere indarraren emaitza besterik ez du ikusten; are gehiago, kapitala desegituratzeko, bere posibletasunen gehitzea antzematen du.

Langile-ikuspuntua fabrikatik gizartera hedatzen denean, kapitala lan produktibo soziala eratzera bortxatzen du. Sozialki baloratzeko, langileriak kapitala desegituratu egiten du, eta kapitala, gizartearen gaineko kontrol zuzena hedatzeko, zenbat eta bortxatuago izan hainbat eta desegituratuago agertzen da.

---

### **Klase-eraketaren ildotik**

---

Negrik ("John M. Keynes e la Teoria Capitalistica dell Stato nel '29", eta, "Marx sul Ciclo e la Crisi", 1972), Trontiren bidetik (1966) abiatuz, 1929ko krisia eta keynesianismoa aztertu du. Negriren ustez, taylorismoa eta fordismoa, funtsean, kapitalak Urriko Iraultzari emandako erantzunak dira. Langile profesionalen eta langile-abangoardien (alderdi komunistak, denbora hartan) arteko aliantza posiblea apurtzea lortu nahi da, langile

profesionalen ordez, langile ez-koalifikatuak bultzatuz.

Erantzun keynestarrarekin Estatua da prozesu ekonomikoaren bermatzailea. Trontik (1966) plusbaliaren sortze-mekanismoa fabrikari kokatzen badu, Negriren iritziz Estatua da klase-borrokaren erregulazio-mekanismoa. Estatuaren bortxakeria, berez, ez da agertzen soil-soilik armada eta poliziaren erabiltzean, baizik eta klase-borrokaren beraren erregulazioan. Negri-ren ustez Estatua dena, Foucaulten aburuz ordena gordarazi duen boterea da.

Baina Estatu keynestarra krisian ere sartu dute langileen errebindikazio sozialek eta borroken masifikazioek. Mundu mailan, Estatu nazionala, nazio Estatua, nazio-askotako enpresen menpekota izanik, krisian dago. Ohizko balio-legeak ez du gehiagorik funtzionatzen; orain indarren arteko harremana politikoki dago gaindeterminaturik. Beraz, Negrik langileria, langile-klasea, politikoki definitu nahi du, ohizko lan produktiboari kasurik egin gabe. Negriren ustez, borroka berriek ez diote begiratzen sorturiko plusbaliaren kantitateari, ustiapen-kalitateari baizik (Negri 1978).

Borroka berri horien gainean, beste kontzeptu batzuk proposatzen dira: bereganatze soziala, sormen-indarra, autobalorazioa, separazioa. Komunismoa bera ez da aurriztatu aurreproiektu bezala, baizik eta borrokan bertan gertatuko den materia produktibo legez. Are gehiago, autobalorazioa dela bide, langileria berriak ez du praktikatzen Estatuarekiko aurkaketa

zuzena, bere espazio propioak lortuz eta bereganatuz aritzen baizik. Langileria berriaren bereganatze sozialaren, sormenaren eta separazioaren desioa kapitalaren kontra zuzendu behar da.

Balioaren kritikatik dominazio kapitalistaren kritikara pasatu behar da. Hortaz, subertsio eraikitzaileak langileria berriaren garapen autonomora zuzendurik egon behar du.

Alderdi komunista ofizialek erabili nahi duten Estatua, behin berorren boterea lortu eta gero, nazioaskotako enpresek menperaturiko mundu-merkatuak dominaten du, autonomia guztia galdu duelarik. (Gogora bedi, erokomunismoaren lema, alegia, "politiko denaren autonomia".) Beraz, Negriren ustez, gizarte zibila gero eta gehiago totalitario den estatu-mota baten ondorioa da. Gizartearen eta politiko denaren autonomiak desagertu dira. Orain, langilegoa ez da langile produktibo soilari dagokion multzoa. Krisiak eta berregituraketa kapitalistak proletari-kategoriak gizartean zehar hedaturiko lan bizi eta alokatuari luzatu dizkiote. Langilegoa hedatu horren premiak eta beharizan berriak ezin dira murriztu lan alokatuan.

Langile berrien, *langile sozialduen*, beharizan propioen esfera handitu, hedatu da, aldatu egin da. Langilegoa, orain, ezin dakioker erreduzi ohizko langile produktiboari. Produktzioa eta birproduktzioa, produktzioa eta zirkulazioa erabat erlazionaturik daudenean (Negri 1979), proletari kontzeptuak lan guztia bereganatu beharko du.

Kapitalismoa nazio-Estatuaren eta lurraldetasun nazionalaren kategorietatik baino haratago joan da. Orain deslurraldetasunez, zirkulazioz, eta deskokatzez funtzionatzen du kapitalak. Prozesu produktiboen informatizazioak eta merkantziaren zirkulazioak (zeren informazioa merkantziarik garrantzitsuena baita) "lurraldetasun" kontzeptua gero eta alferrago bihurtu dute. Komunikazio-lurraldetasuna gaur egungo produktioaren dimentsioa da, ukiezinezko lurraldetasuna alegia. Orain kapitalis-moak bere dominazioa gizarte osoari, denbora osoari luzatu nahi dio.

Hemendik aitzina, adierazpen eta antolaketa politiko berriez (Negri 1982), eta askatasunezko elkartasun eta espazio berriez (Negri eta Guattari 1985) aritu beharko du, aro berriari erantzuna emateko.

---

## Bibliografia

---

NEGRI, T. (1972) *Operai e Stato*. Milan: Feltrinelli.

NEGRI, T.; *La Forma Stato*. Milan: Feltrinelli, 1977.

NEGRI, T.; *La classe ouvrière contre l'État*. Paris: Galilée, 1978

NEGRI, T.; *Marc oltre Marx: Quaderno di Lavoro su Grundisse*. Milan: Feltrinelli, 1979.

NEGRI, T.; *Macchina Tempo. Tompicapo, Liberazione, Costituzione*. Milan: Feltrinelli, 1982.

NEGRI, T. eta Guattari F.; *Les nouveaux espaces de liberté*. Paris: D. Bedou, 1985.